

3. Administrazioetan erakunde-arteko koordinazio egokia erraztea

Oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta espezializatuetan nahiz horien eta autonomia erkidegoko administrazioaren artean erregistratu diren koordinazio-arazoak direla eta, beharrezkoa da esparru sozialean koordinazioa hobetzea menpekotasunaren babeseta eta autonomia pertsonalaren sustapenaren arloko administrazioen artean. Horretarako, informazioa eskuratzeko sistema partekatua sortu behar dira⁹⁵ –datuen babesaren arloko araudia betetzen duten sistemak–; eskuragarri dauden zerbitzuei buruzko informazio fidagarria eskaintzen duten mekanismoak ezarri behar dira; akordioak edo hitzarmenak sinatu behar dira; beharrezkoak diren baliabideak eskualdatu behar dira eta lan integratua gauzatu behar da.

4. Sistema sozialaren eta sanitarioaren arteko koordinazioa bultzatzea, baita esparru sozio-sanitarioa garatzea ere

Sistema sozialaren eta sanitarioaren arteko koordinazioa eta esparru sozio-sanitarioa delakoaren garapena ezinbestekoak dira menpekotasunari eta autonomia pertsonalaren sustapenari behar bezalako arreta eskaintzeko. Laguntza-maila desberdinen artean arreta integrala, jarraitua eta koordinatua bermatzea da helburua, eta, horretarako, arretaren egiturak menpekotasun-egoeran dauden pertsonen beharretara egokitu behar dira.

Zehazki, nahitaezkoa da:

4.1. Pertsonaren osasun-egoera osoki ezagutzea bermatzea haren menpekotasuna behar bezala baloratzeko, eta sistema sozialak osasunaren arloko informazioa eskuratzeko prozesua arintzea.

4.2. Erantzun ezin hobea ematea osasun-sistemak emandako jarraibidea koherentea izan dadin sistema sozialak esleitutako baliabidearekiko.

4.3. Baliabide sozio-sanitarioak martxan jarri eta mantentzeko prozesuan bi sistemek behar bezala parte hartzen dutela bermatzea.

4.4. Modu integralean erantzutea biztanleriako kolektibo jakin batzuei, adibidez, gaixotasun kronikoak dauzkaten pertsoneri; buru-gaixoei, goizegi, pisu gutxirekin edo ezgaitasunak izateko arriskuarekin jaiotako umeei; ezgaitasunak dauzkaten pertsoneri edota arreta sanitario berezi gehiago behar duten pertsoneri.

Gaixotasun mentalak dituzten eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonen kasuan, haiei eskaintzen zaizkien baliabideek –normalean sozio-sanitarioak izaten dira– bi sistemen artean

⁹⁵ Eskuragarri dugun informazioaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak informazioa eskuratzeko garatutako sistema partekatua (EXTRANET) emaitza onak ematen ari dela dirudi, eta gizarte-zerbitzuak eta osasun mentaleko zentroak sistema horretara sartzeari ahalbidetzen du.